

***GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN PLANA EMAKUMEEN ETA GIZONEN  
ARTEKO AUKERA BERDINTASUNAREN ALDE***

**HITZAURREA**

Herritarrei aitorturiko eskubideak trabarik gabe erabili ahal izatea da gizarte aurreratuen erronka handienetako bat, baina erronka horrek badu zailtasunik, arrakasta izateko nahitaezko baita pentsamoldeak eta jarrera pertsonal eta sozialak aldatzea. Gauzak horrela, gaur egun, aro berri batean sartuta gaudenen honetan, informazioaren eta jakintzaren gizartearen aroan hain zuzen, emakumeen eta gizonen arteko aukera berdintasuna lortu gabe dago oraindik. Horregatik bada, gizarte aurreratuago eta bidezkoagoa lortzeko Gipuzkoako Foru Aldundiaren ekimenean leku berezia eman zaio genero berdintasunari, hau da, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari.

Emakumeen eskubideak onartuz, argi eta garbi aurrerako urrats bat egingo da giza eskubideen gaian eta, horregatik ere, emakumeen parte hartze zuzenarekin egituraturako gizartearen bila dabil Aldundia. Horrek esan nahi du, besteak beste, lan merkatuan sartzeko emakumeek gizonen aukera berdina izan behar dituztela eta familiako bizitza eta lanekoa bateragarri bihurtu behar direla.

Bide hori jorratzeko beharraz ohartu denez eta auzi hau guztia emakume eta gizonen kontua ez ezik gizarte osoarena ere badenez, ekintza positibo batzuk onartzea erabaki du Aldundiak, sexuaren eraginezko desberdintasunak eta diskriminazioa ezabatzeko, batetik, eta, izan emakume izan gizon, pertsona guztien arteko berdintasuna bultzatzeko, bestetik. Hau da, bai gizarte agenteen eta bai erakunde publiko eta pribatuen nahiz herritarren jokamolde eta jarreraren aldaketa ekarriko duen gizarte eraldakuntza behar dugunez, Foru Aldundia ere behartuta zegoen ikuspegi horrekin tresnaren bat garatzera eta, hain zuzen, horretara dator Gipuzkoako Foru Aldundiko emakumeen eta gizonen arteko Aukera Berdintasunaren Plana. Izan ere, emakumeei bizimodua erosoagoa

egingo dien eta aukeren berdintasuna errealitate bihurtuko duten aldaketak bultzatu nahi ditugu.

Zazpi areetan egituratuta, ekintza positibo horiek osatzen dute Gipuzkoako Foru Aldundiaren Aukera Berdintasunaren Plana eta foru departamentu guztiak bat datoz horrekin. Horrek esan nahi du departamentuek generoaren ikuspuntua eta berdintasunaren ikuspegia kontuan hartuko dituztela beren politikak erabakitzeke garaian, hau da, nola emakumeek hala gizonak eduki eta bizi dituzten ezaugarri, beharkizun eta egoera desberdinak kontuan hartuko dituztela. **Bere erabilerarako Aldundiak** abian jarriko duen **tresna bat** da, gizonen eta emakumeen arteko aukeren berdintasunaren alde koherentziaz, bateratuta eta sistematikoki jokatzeko aukera emango dion politika egituratu bat izateko pentsatua. Hitz batekin esanda, Gipuzkoako Foru Aldundiaren plana da, lehentasunez Aldundiko departamentuek garatu, gauzatu eta osatu behar duten plana, hain zuzen. Baina, aldi berean, Gipuzkoako **gizarte osoari** eskaini nahi dio, emakumeen gizarte partaidetza areagotzen eta gizarte eragile guztiak aukera berdintasunaren aldeko politiketara eramaten laguntzeko. Plan honen bidez Gipuzkoako Foru Aldundiak bi helburu handi lortu nahi ditu: foru administrazioa aukera berdintasunaren bidean jartzea, batetik, eta gipuzkoar gizartearen baitan generoaren eta aukera berdintasunaren politikak bultzatzea, bestetik, administrazio eta erakunde bakoitzari zor zaion eskumen banaketa errespetatuz beti ere.

Foru Aldundiak, sexu desberdintasunaren ondorioz gertatzen diren hainbat injustizia edo desberdintasun egoera konpontzera bideratutako ekintza lerro oso bat bildu du plan honetan. Gipuzkoako Foru Aldundiak alor honetan Emakunderen eskutik jardungo du, eta emakumeek gizartean parte har dezaten pentsatutako ekimenak ere bultzatuko ditu. Planaren bitartez, Gipuzkoako Aldundiak **genero ikuspegia** eta gizon-emakumeen arteko aukera berdintasuna bere jarduketara guztietan txertatzeko konpromisoa hartzen du, eta, horretaz gainera, gizarte guztia sentibilizatzeko ahalegina egingo du, genero ikuspegia gai orokorra izatera iritsi dadin.

Beraz, gizon-emakumeentzako aukera eta tratu berdintasunaren esparruan kokatuta dagoelarik, Aldundiaren Aukera Berdintasunerako Planak oinarrian bi ekintza lerro hauek ditu: **ekintza positiboa** eta **zihar-jarduna**, hau da: sexu berdintasunaren bidean dauden oztopo espezifikoak ezabatzeko ekintza zehatzak abiaraztea, eta instituzio publikoen politika eta ekintza guztietan genero ikuspegia txertatzea. Ekintza positiboa eta generoaren zeharkakotasuna xede dituzten politika hauen oinarria hainbat arautan emana dute bai Europar Batasunak, bai Espainiako Estatuak eta bai Eusko Jaurlaritzak. Horien artetik bereziki aipatuko ditugu 1997an onartutako Amsterdamgo tratatua eta 1999ko abenduaren 21ean onartutako Euskadiko Autonomia Erkidegoko emakumeentzako Ekintza Positiboko III. Plana.

Aukera Berdintasunerako Planaren aurretik ere, Gipuzkoako Foru Aldundiak ahaleginak egin izan ditu emakumeen lan munduko egoera hobetzeko, eta, zentzu horretan, emakumeak prestatzeko eta lan mundura bideratzeko hainbat ekimen sustatu izan ditu. Ezin da ahaztu, izan ere, emakumeen kolektiboa dela gizarte bazterketa nozitzeko arriskurik handienean dagoena, eta ez dago esan beharrik Gipuzkoako Foru Aldundiak kontuan hartzen duela hori bere gizarte politikak diseinatzeko orduan. Hala, Aldundiak emakumeak prestatzeko hainbat ekintza martxan jarri ditu, zehazki informazioaren eta jakintzaren gizarteak eskaintzen dituen aukerak aprobeatza ditzaten asmatuak, eta horrela emakumeen jardura tasa handitu dadin helburutzat hartuta.

Aukera Berdintasunerako Planean jaso diren neurriei dagokienez, horien artean hainbat xede dituztenak badira: emakumeen kontrako biolentziarekin amaitzeko profesionalak prestatzera bideratuak, emakumeen lan egoera aztertu eta emakumeen kolektiboetan ekonomia, prestakuntza eta enplegu sustapenerako politiken eragina ezagutzera zuzenduak, gizartean esku hartzeko programetan eta ingurumenarekin zerikusia dutenetan genero ikuspegia sartzeko asmotan eginak, eta kultur jarduerak emakumeen eta gizonezkoen premia desberdinei egokitzeko eskaintza zabaltzeko xedea dutenak.

Aukera Berdintasunaren Foru Planean ia ehun ekintza positibo jaso dira, helburu orokor honekin beti: lan egitea emakumeen eta gizonen berdintasunaren alde. Ekintza horiek guztiak zazpi areetan banatuta daude. Hauek dira:

1. Aukera berdintasuna Foru Administrazioan.
2. Gizartearen parte hartzea
3. Emakumeen aurkako indarkeria desagerraraztea
4. Erantzukizun partekatua eta bateragarritasuna
5. Aukera berdintasuna kulturgintzan
6. Ekonomiaren sustapena, enplegua eta prestakuntza
7. Gizarte ekintza eta bizitza kalitatea

Ekintza horiek guztiak aurrera eramango direla ziurtatzeko, **departamentuen arteko organo** bat eratuko da, foru departamentuetako politikari arduradunekin eta bidezko iritzitako teknikariek osatuta. Planean aurreikusitako jarduerak bultzatu eta koordinatzea izango dira organoaren zereginak, eta eskumena izango behar bezainbeste aldaketa proposatu eta egiteko.

## **1. AREA.- AUKERA BERDINTASUNA FORU ADMINISTRAZIOAN**

**1.1 Helburura. Gipuzkoako Foru Aldundiaren xedapenen bitartez aukera berdintasuna bultzatzea**

1.1.1 Ekintza. Laster baino lehen diagnostiko sakon eta osoa egitea, foru administrazioan eta Gipuzkoako herrialdean emakumeen eta gizonen arteko aukera berdintasuna zertan den objektibotasunez eta zehatz-mehatz jakiteko.

1.1.2 Ekintza. Helburutzat plana gauzatzea hartuta, urtero jarduketa programa bat onartzea.

**1.1.3 Ekintza.** Urteko programak garatzeko departamentu bakoitzak bere ekintzak definitzea.

**Acción 1.1.4.** Hizkuntzaren, irudien eta edukien erabilera ez dadin izan ez sexista ez gizon ikuspegikoa, departamentu bakoitzaren komunikazio politiketan irizpideak eta irtenbideak jasotzea eta kontzeptu eta irudiei dagokienez formulak komunak eta gramatika generoei dagokienez lehentasunak ezartzea.

1.1.5 Ekintza. Gipuzkoako Foru Aldundiko programak eta esku hartzeak aukera berdintasunaren helburuarekin zein neurritan ezkontzen diren jakiteko ebaluazio metodoren bat erabakitzea.

**1.1.6 Ekintza.** Pixkanaka gizonen eta emakumeen arteko parekotasuna bilatzea Foru Aldundiak eta menpeko organismoek proposaturako auzitegi, epaimahai eta antzeko organoetako osaketan.

**1.2 Helburua. Aukera berdintasuna bultzatzea Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta menpeko organismoen hautapen, prestakuntza eta sustapen prozesuetan.**

1,2.1 Ekintza. Ikuspuntutzat generoa hartuta, ikertu eta aztertzea Gipuzkoako Foru Aldundiko lanpostu egoera, area eta kategorien arabera lanpostuek izan duten garapena eta barne sustapenaren bilakaera. Horrek guztiak aukera emango luke beharrak atzeman eta, erakundea gizonen eta emakumeen arteko aukera berdintasunean erreferentzia puntua izan dadin, beharrezko neurriak diseinatzeko.

1.2.2 Ekintza. Beharrezkoa den neurrian, enplegu publikoaren eskaintzetan generoaren ikuspegia sartu eta alderdi sexistak baztertzea.

1.2.3 Ekintza. Ikuspuntutzat generoa hartuta, balorazio, hautapen eta sustapen prozesuetan lanpostuen izenak aztertu eta, bere kasuan, zuzentzea.

1.2.4 Ekintza. Medikuz azterketen protokoloetan emakumeen eta gizonen arteko erikortasun bereizgarriak kontuan hartuko direla ziurtatzea.

1.2.5 Ekintza. Gehiengo edo emakumeak edo gizonak diren Gipuzkoako Foru Aldundiko lan arloei dagokienez, bakoitzaren osasuneko arrisku bereziak aztertu eta azaltzea.

1.2.6 Ekintza. Gipuzkoako Foru Aldundiko langileei azaltzea zeri deitzen zaion emakumeen eta gizonen arteko laneko bizikidetzaren egokia eta zeintzuk diren usteko sexu erasoak salatzeko jarraibideak.

**1.3 Helburua. Lan bizitza, bizitza pertsonal eta familia bizitzaren arteko bateragarritasuna eta elkarren arteko erantzukizuna bultzatzea Gipuzkoako Foru Aldundiko langileen artean.**

1.3.1 Ekintza. Gurasoentzako baimen aukerei buruzko informazio kanpaina egitea Gipuzkoako Foru Aldundiko langileen artean eta, besteak beste, eskubide horiez gizon-emakumeek elkar hartuta baliatzeak duen garrantzia azpimarratzea.

1.3.2 Ekintza. Baimen eta lizentzien azterketa bat egitea Gipuzkoako Foru Aldundiko langile gurasoentzat.

#### **1.4 Helburua. Gipuzkoako Foru Aldundiko langileak aukera berdintasunaren gaian trebatzea**

1.4.1 Ekintza. Gipuzkoako Foru Aldundiko eta menpeko erakundeetako langileentzat egiten diren sentsibilizazio kanpainetan aukera berdintasunaren filosofia ere txertatzea.

1.4.2 Ekintza. Foru teknikari eta arduradunak trebatzea generoari eta aukera berdintasunari buruzko kontzeptu eta proposamenak Gipuzkoako Foru Aldundiaren jardueretan txerta ditzaten, esate baterako, aurrekontuetan, politika sektorialetan, gaur egungo planen balorazioetan eta ebaluazioetan.

#### **1.5 Helburua. Aukera berdintasunaren filosofia Gipuzkoako Foru Aldundiko lan egiteko eran erakustea**

1.5.1 Ekintza. Sexuaren aldagaia sistematikoki kontuan hartzea Gipuzkoako Foru Aldundiak sortu eta programa, azterketa eta abarretako erakunde

laguntzaileei bidaltzen zaien informazioa jaso, aztertu eta zabaltzeko garaian.

1.5.2 Ekintza. Adierazgarria denenean, aldagaien gurutzaketa sexuaren aldagaia kontuan hartuz diseinatzea.

1.5.3 Ekintza. Beste erakundeek Gipuzkoako Foru Aldundiarentzat azterketak, informeak, argitalpenak eta publizitatea egin behar dituztenean, kontratuen baldintza teknikoan orrietan emakumeen eta gizonen arteko aukera berdintasunaren baldintza sartzea eta, hala, datu estatistikoak sexuen arabera bana daitezzen eta hizkuntzaren erabilera ez-sexista eta irudiena ez-estereotipatua izan daitezzen eskatzea.

1.5.4 Ekintza. Gipuzkoako Foru Aldundiaren esku hartze politikek eta programek gizonengan eta emakumeengan duten eragina aztertzea.

## **1.6 Helburua. Beste erakundeek ekintzetan ere aukera berdintasunaren garapena bultzatzea**

1.6.1 Ekintza. Gipuzkoako Foru Aldundiaren partetik norabide eta ekintza positiboak proposatzea horiek aurrera eramateko erantzukizuna duten erakundeei.

1.6.2 Ekintza. Beste erakundeei aukera berdintasunaren aldeko neurriak garatzen laguntzea.

## 2. AREA.- GIZARTEAREN PARTE HARTZEA

**2.1 Helburua.** Ezagutzera ematea bai emakumeen eskubideak, bai Gipuzkoako Foru Aldundiko emakumeen eta gizonen arteko Aukera Berdintasunaren Plana eta baita aukera berdintasunari buruzko gaur egungo legeria ere.

**Acción 2.1.1.** Plana eta aukera berdintasunarekiko konpromisoa zabaltzeko kanpaina egitea.

**2.1.2 Ekintza.**Gipuzkoako Foru Aldundiaren informazio eta zabalkunde jardueretan txertatzea gizarteko presentzia edota onarpen gutxiagoko kolektiboen aldeko irudi eta edukiak.

**2.1.3 Ekintza.**Beste erakundeekin batera parte hartu eta haiei laguntzea emakumeen eskubideekin zerikusirik duten egun eta ospakizunen inguruko kanpaina eta jarduerak antolatzen.

**2.1.4 Ekintza.**Elkarte eta erakundeei diru laguntzak emateko irizpideen artean kontuan hartzea elkarte eta erakunde horiek antolatutako prestakuntza ekintzetan emakumeen eskubideak eta aukera berdintasuna babesten dituzten moduluen diseinuak eta edukiak.

**2.1.5 Ekintza.**Gipuzkoako Foru Aldundiarekin harremanak dituzten erakundeetako arduradunak trebatzea generoari eta aukera berdintasunari buruzko kontzeptu eta proposamenetan.

## **2.2 Helburua. Emakumeen elkarlana bultzatzea**

2.2.1 Ekintza.Sareak suspertzera bideratutako moduluak sartzea prestakuntza ekintzetan, emakume gazteen kolektiboetara zuzendutakoetan batez ere.

2.2.2 Ekintza.Gipuzkoako emakume taldeen arteko topaketak bultzatzea, eta horietan azpimarratzea bai Gipuzkoako Foru Aldundiko emakumeen eta gizonen arteko Aukera berdintasunaren Plana eta bai planeko helburuak lortzeko lan egin beharra ere.

2.2.3 Ekintza.Herri txikietako emakumeen elkartegintza bultzatzea, horien ezaugarri bereziak kontuan hartuz eta, bere kasuan, laguntza neurriak proposatuz.

## **2.3 Helburua. Elkarte jardueretan erantzukizunaren eta ordezkariaren parekotasuna bultzatzea maila guztietan.**

2,3.1 Ekintza.Elkarteei laguntzea beren helburu, estatutu, programa eta egituretara aukera berdintasunaren filosofia eraman dezaten, hizkuntza ez-sexista erabiliz eta emakume eta gizonen arteko partaidetza parekidea bultzatuz batez ere.

2,3.2 Ekintza.Berariaz sustatzea ardura zibil eta politikoko emakumeen presentzia Gipuzkoan.

2.3.3 Ekintza.Gizarte ekintzetan eta erabakietan gazteen partaidetza parekidea bultzatuko duten modulu eta neurriak sartzea Gipuzkoako Foru Aldundiak antolatutako jardueren programetan.

### **3. AREA.-EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA DESAGERRARAZTEA**

**Objetivo 3.1. Etxeko tratu txarrei eta emakumeen aurkako sexu erasoei buruzko ikerketak bultzatzea.**

3.1.1 Ekintza.Ebaluatzea etxeko biolentziaren eta sexu erasoen gaietarako badagoen baliabiderik biktimei laguntza psikologikoa emateko programetan, laguntza juridikoko zerbitzuetan, harrera etxeetan, larrialdi zerbitzuetan, erasotzaileei laguntza psikologikoa emateko programetan eta beste batzuetan.

3.1.2 Ekintza.Gaian eskumena duten beste instituzioekin batera lankidetzaren foroetan parte hartzea, zerbitzu eta baliabideei buruzko datuen bilketan irizpideak bateratu eta, horrela, datu homogeneoak lortzeko.

**3.2 Helburua: Etxeko tratu txarren eta sexu erasoen gaian prebentzio jarduerak egitea**

3.2.1 Ekintza.

Udalerrietako gizarte zerbitzuekin elkarlanean, etxeko tratu txarren eta sexu erasoen gaia lantzea.

3.2.2 Ekintza.Etxeko indarkeria eta sexu erasoak ezagutzera eman eta prebenitzeko zuzenduta dauden sentsibilizazio ekintzak (kanpainak, jardunaldiak, hitzaldiak, eskuliburuak eta abar) ebaluatzea.

**3.2.3 Ekintza.**Diru laguntzak emateko garaian aldekotasunez baloratzea gazteen eta beste kolektiboen hezkuntza afektiboa lantzeko programak eta, edozein eratar, generoaren ikuspuntua kontuan hartzea.

**3.3 Helburua. Etxeko tratu txarren eta sexu erasoen gaia lantzen duten profesional eta kolektiboak prestatzea.**

**3.3.1 Ekintza.** Emakumeen aurkako indarkeriari buruzko heziketa jarduerak antolatzea, horrelako kasuak jaso eta tratatzen dituzten profesionaleri zuzenduta.

**3.3.2 Ekintza.** Udalekin, Aldundiarekin, epaileekin, osasun egiturekin, psikologoekin elkargoarekin, zerbitzu kudeatzaileekin eta abarrekin osatuta, instituzioen arteko lan ekipoa sortzea, etxeko tratu txarrak eta sexu erasoak pairatutako emakumei hobeto laguntzeko erabakita dauden tresnak instituzioen arteko protokoloan txertatzeko.

**3.3.3 Ekintza.** Etxeko indarkeria dela-eta esku hartzeen praktika onak eta prebentzio programak trukatzeko helburu duten lantaldeetan parte hartzea.

**3.4 Helburua. Emakumeen aurkako indarkeriaren biktimei laguntza hobetzea**

**3.4.1 Ekintza.** Delitu horien biktimei laguntza eman eta harrera egiteko zerbitzuen arteko koordinazioa sistematizatzea.

**3.4.2 Ekintza.** Tratu txarren eta sexu erasoen biktimei laguntza juridikoa emateko programen egoera aztertzea.

**3.5 Helburua. Etxeko indarkeriaren eta sexu erasoaren biktimei lagundu eta harrera egiteko zerbitzu eta baliabideak egokitzea.**

**3.5.1 Ekintza.** Etxeko tratu txarren eta sexu erasoaren biktimei laguntzeko zenbat zerbitzu juridiko eta psikologiko dauden eta lurraldean nola antolatuta dauden aztertzea, egon litezkeen hutsunak atzeman eta neurriak hartzeko.

**3.5.2 Ekintza.** Sentsibilizazio jarduerak bultzatzea bai genero indarkeriaren arrazoiei buruz eta baita etxeko tratu txarren egileei, zigor eta espetxe neurriekin batera edo horien ordean, laguntza psikologikoko zerbitzuak eskaintzeko komenigarritasunari buruz ere.

**3.5.3 Ekintza.** Harrera etxeen eskaintzaren jarraipena egitea.

**3.5.4 Ekintza.** Harrera etxeen antolamendu eta funtzionamenduari buruzko irizpideak definitzen laguntzea.

**3.5.5 Ekintza.** Ostatu eta laguntzako dei larriei nola erantzuten zaien jarraipena egitea.

**3.5.6 Ekintza.** Behar bereziei erantzuteko zerbitzuen mugierreztasun fisikoa bultzatu eta espazio egokiak sortzea.

**3.5.7 Ekintza.** Gizarte babeseko sistemen eskuragarritasuna aztertzea, besteak beste larrialdiko prestazio ekonomikoenak, haur eskolena eta prestakuntza eta enpleguko programena.

**3.5.8 Ekintza.** Etxeko tratu txarren biktimei xederako kontratazio neurrien jarraipena egitea.

**3.5.9 Ekintza.** Aldundiak atzemandako etxebizitza beharrak udalei jakinaraztea.

#### **4. AREA.- ERANTZUKIZUN PARTEKATUA ETA BATERAGARRITASUNA**

**4.1 Helburua.** Etxeko jardunean emakumeek eta gizonek erantzukizuna parteka dezaten bultzatzea

4.1.1 Ekintza. Erantzukizun familiar, sozial eta profesionaletako ohiko ardurei buruzko jarrera aldatzeko balio lezaketen elementuak sartzea Gipuzkoako Foru Aldundiaren kanpaina, eskuliburu eta materialetan.

4.1.2 Ekintza. Etxeko lanetan eta pertsonen zaintzan erantzukizun partekatuaren alde sentibilizatu eta gaitzeko ekimenak lantzea umeei, gazteei, ezinduei, adinekoei eta beste kolektibo batzuei zuzendutako Gipuzkoako Foru Aldundiaren aisialdi jardueretan

**4.2 Helburua.** Erantzukizun partekatua eta bizitza pertsonal, familiar, sozial eta profesionalaren bateragarritasuna bultzatzeko, baliabide eta zerbitzu sozial eta komunitarioak hobetzen saiatzea

4.2.1 Ekintza. Zaintzaileen beharrak eta denbora erabilerak aztertu eta berrikustea, eta ordutegien eta zerbitzu sozial eta komunitarioen alorretan hartu beharreko neurriak proposatzea.

4.2.2 Ekintza. Familia bitartekotzari buruz onartzean dagoen legeko neurrien garapena bultzatzea, instituzioen arteko eskumen banaketari men eginez.

4.2.3 Ekintza. Laguntzen deialdietan bidea irekitzea zaintzaileen behar bereziei erantzuteko neurri osagarrien eta baliabideen aldeko proposamenei.

## **5. AREA.- AUKERA BERDINTASUNA KULTURGINTZAN**

### **5.1 Helburua. Begien aurrean jartzea emakumeen esku hartze eta ekarpena kultur adierazpenetan**

5.1.1 Ekintza. Finantza erakundeei eskatzea beren informe eta txostenetan partaidetza datuak sexuaren arabera antolatuta eman ditzaten eta, ahal bada, datu horiek aztertu eta interpreta ditzaten.

5.1.2 Ekintza. Gipuzkoako Foru Aldundiaren jarduera eta argitalpenen bidez urtero saiatzea emakumeen eta gizonen kultur ekarpenak berdintasunezko irizpideekin ezagutzera ematen.

5.1.3 Ekintza. Kulturaren, pentsamenduaren eta gizartearen gaietan historian zehar nabarmendu diren gipuzkoar emakumeei buruz azterketa bat egin eta haiek ezagutzera ematea izenak kaleei, plazei eta eraikinei jarriz.

5.1.4 Ekintza. Kulturaren ekoizpenean eta euskararen irakaskuntzan emakumeek egindako ekarpena ezagutzera ematea.

### **5.2 Helburua. Aukera berdintasunaren aldekoak diren kultur alderdiak zabaltzea**

5.2.1 Ekintza. Aukera berdintasunarekin zerikusirik duten gaiak zabaltzea Koldo Mitxelena kulturuneko liburutegiaren bidez, eta izaera ez-sexistako irakurketak gomendatuz gida bat egitea.

5.2.2 Ekintza. Beren barnean gizartearen ikuspegi ez-sexista daramaten kultura eta arteko ekoizpenak bultzatu eta gidetan eta beste komunikabidetan ezagutzera ematea.

5.2.3 Ekintza. Erakunde laguntzaileei irizpideak ematea aukera berdintasuneko jokabide egokiei buruz eta beren zereginetan generoaren ikuspuntua sartzeko aukerari buruz.

5.3 Helburua. **Kulturako eta aisialdiko jarduerak dibertsifikatu eta emakumezko eta gizonezkoen beharrei egokitzea, partaidetza eta ekoizpena bultzatuz.**

5.3.1 Ekintza. Emakumezkoen eta gizonezkoen beharrak aztertzeke, Gipuzkoako Foru Aldundiak antolatutako ekintzetan parte hartzen dutenen datuak biltzea.

5.3.2 Ekintza. Gipuzkoako Foru Aldundiak antolatutako ekintzetan parte hartzen dutenen ordutegia eta tipologia aztertu eta inoiz edo gutxitan azaltzen direnei bidea errazteke programa bereziak antolatzea.

5.3.3 Ekintza. Gipuzkoako Foru Aldundiaren sari, beka eta deialdiak ebazteke epaimahaietan emakumeen eta gizonen esku hartze parekidea ziurtatzea.

5.3.4 Ekintza. Beren diseinuan kolektiboen ezaugarri, behar eta eskaera bereziak kontuan hartzen eta aukera berdintasuna bultzatzen dituzten kultur programak sustatzea.

5.4 Helburua. **Emakumeek kirol praktikaren eta erabakien maila guztietan parte har dezaten bultzatzea**

5.4.1 Ekintza. Ikuspuntutzat generoa hartuta, kirol federatuaren eta jolas kirolaren finantzaketaz baliatzen diren kolektiboen azterketa egitea eta, aldi berean, desberdintasunaren sustraiak aztertu eta konponketarako neurri bereziak proposatzea.

- 5.4.2 Ekintza. Kirol munduko emakume eredugarrien irudiak zabaltzea.
- 5.4.3 Ekintza. Emakumezko ekipoak eta ekipo mistoak sor daitezen eta lehiaketan parte har dezaten saiatzea.
- 5.4.4 Ekintza. Emakumeek Gipuzkoako kirol federazio eta klubetako zuzendaritzetan esku har dezaten bultzatzea.
- 5.4.5 Ekintza. Emakumeak arbitro, entrenatzaile eta besteko tituluak lortzen saia daitezen bultzatzea.
- 5.4.6 Ekintza. Goi lehiaketako emakumezko ekipoak dituzten kirol klubekin lan egitea, komunikabideen, babesleen, instituzioen eta oro har gizarte osoaren emakumezkoen kirolaren gaineko iritzia alda lezaketen ekintzak diseinatzeko.

## **6. AREA.- EKONOMIAREN SUTAPENA, ENPLEGUA ETA PRESTAKUNTZA**

**6.1 Helburua. Enpleguaren, prestakuntzaren eta ekonomi sustapenaren politiketan aukera berdintasuna bultzatzea.**

6.1.1 Ekintza. Generoaren ikuspuntua sartzea Gipuzkoako ekonomiaren eta enpleguaren egoera ezagutzeko, alderdi horiei buruzko politika definitzeko eta egindakoa ebaluatzeko eginen diren ikerketa eta azterketan.

6.1.2 Ekintza. Enpleguaren eta ekonomi sustapenaren alorretan bereziki emakumeen eta oro har gizartearen (eragile ekonomiko, sozial eta instituzionalen) aukera berdintasunerako arreta pizten laguntzea eta ikuspegi horrekin politikak eta jarduerak bultzatzea.

**6.1.3 Ekintza.** Enpleguaren eta ekonomi sustapenaren alorretan emakumeen berdintasuna berariaz indartzeko duten ekonomi sustapen eta enplegu politikak diseinatu eta aplikatzea.

6.1.4 Ekintza. Enpleguaren eta ekonomi sustapenean emakumeen berdintasuneko esku hartzea une oroz indartzeko moduan kudeatzea enpleguari eta ekonomi sustapenari buruzko politikak.

**6.1.5 Ekintza.** Informazioaren teknologia berrietan emakumeak presta daitezzen berariazko jarduerak erabakitzea eta, ondorioz, arlo horretan emakumeen esku hartze zuzena bultzatzea.

## 7. AREA.- GIZARTE EKINTZA ETA BIZITZA KALITATEA

**7.1 Helburua.** Generoaren ikuspuntua sartzea esku hartze sozialeko programetan

**7.1.1 Ekintza.** Esku hartzeko politikak diseinatzen direnean kontuan hartzea txirotasuna gero eta gehiago emakumeen ezaugarria dela eta, aurre egin nahi bazaio, gizarte desberdintasunen artean arazo horrek lehentasuna izan behar duela.

7.1.2 Ekintza. "Laguntzaren sare naturala" osatzen duten gizon eta emakumeentzat laguntzako programa bereziak lantzea: atsedeen programak, autolaguntzakoak, komunikaziokoak, elkarri laguntzekoak eta abar.



***PLAN DE LA DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA PARA LA IGUALDAD DE OPORTUNIDADES ENTRE MUJERES Y HOMBRES***

**PRÓLOGO**

Uno de los mayores retos con que se encuentran las sociedades avanzadas es la consecución de la total implantación de los derechos reconocidos a la ciudadanía, pero ese reto se torna dificultad cuando para su cumplimiento se requiere un cambio de mentalidad o la modificación de actitudes personales y sociales. Así las cosas, hoy en día, cuando estamos inmersos en una nueva era, en la era de la sociedad de la información y del conocimiento, la igualdad de oportunidades para mujeres y hombres no se ha logrado todavía. Así pues, en la labor que día a día lleva a cabo la Diputación Foral de Gipuzkoa por lograr una sociedad más avanzada y más justa para toda la ciudadanía cobra especial relevancia la igualdad de género; esto es, la igualdad entre mujeres y hombres.

El respeto a los derechos de las mujeres supone, evidentemente, un avance en materia de derechos humanos por lo que desde la Diputación se busca una sociedad en la que las mujeres participen activamente; esto significa que las mujeres puedan acceder en igualdad de oportunidades que los hombres al mercado laboral o que, entre otras cosas, se pueda compatibilizar la vida familiar y el trabajo.

Una vez constatada la necesidad de avanzar en este camino –algo que no atañe sólo a las mujeres o sólo a los hombres, sino que atañe al conjunto de la sociedad- la Diputación ha visto necesario adoptar un conjunto de acciones positivas dirigidas a eliminar las desigualdades y la discriminación por razón de sexo, así como a promover la igualdad de oportunidades entre todas las personas, sean hombres o mujeres. Es decir, se ha visto obligada a desarrollar un instrumento, este Plan de Igualdad de Oportunidades entre

mujeres y hombres de la Diputación Foral de Gipuzkoa, orientado a lograr una transformación social que conlleve cambios de comportamiento y actitudes tanto de los agentes sociales, como de los organismos públicos y privados y de la ciudadanía. Cambios que faciliten la vida de las mujeres y hagan realidad la igualdad de oportunidades.

